

MOZIO ARRUNTA,

DONOSTIAKO IKASTETXEEK DUTEN BALIABIDE FALTA DELA-ETA

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNTA aurkezten du, Donostiako Ikastetxeek duten baliabide falta dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Ekainaren 13an, Donostiako 20 ikastetxek Irakaskuntza Publikoa benetan zaintzeko eskaera zuzendu ziguten erakundeoi.

Ikasturte amaiera iritsi da eta datorren ikasturterako izango dituzten giza baliabideen zerrenda (LZ) jaso dute. Horrek eskola zuzendaritzetan kezka sortu ditu.

Eskola publikoak dituen erronkak handiak dira eta zuzendaritzak horiei aurre egiten saiatzen dira egunerokotasunean. Hala ere, ezinezkoa zaie erronka horiei modu egokian aurre egitea ikastetxeetara heldutako baliabideek ez dutelako bat egiten bizi duten errealitatearekin:

-DIGITALIZAZIOA. Hezkuntza Sailak digitalizazioa txertatzea bultzatu du bai kudeaketa mailan, bai ikasleen hezkuntza lanetan. Baina helburu hau lortzeko baliabideak behar dira: pertsonalak, baita ekonomikoak ere. Hori betetzeko, arduraren hori beteko duen lanpostua izendatzea eskatzen dute: LH 3. zikloko ordenagailu eta arbelen jarraipena eta konponketa bideratzeko, ordenagailu gelen jarraipena eta programen txertaketa egiteko, berritze-guneetako mintegietan parte hartzeko...

-ANIZTASUNA. Talde egonkorak nahi dituzte ikastetxeetan, era guztietako aniztasunei erantzuteko eta premia bereziei aurre egiteko: HPBko ikasleak, E.A.E.ra ikasle etorri berriak Hezkuntza laguntzarako espezialisten beharra azpimarratu dute.

-ADMINISTRAZIOA. Kudeaketa administratiborako langileak beharrezkoak dira. Ekonomia kudeaketa osoa administrariak balira bezala egitea eskatzen da. Aplikazio itxiak erabili behar direnez, sarri ezinezkoa izaten da datuen inportazioa egitea, eta hainbat eta hainbat datu bi edo hiru aldiz eskuz idatzi behar izaten dira. Arazoa konpontzeko, administratiboak behar dira HH eta LHko zentroetan.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak aurkezten du honako

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
eh_bildu@donostia.eus - Tel. 943481027 –

MOZIOA ARRUNTA

-Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Donostiako eskoletan digitalizazio ardura beteko dituzten lanpostuak izendatzea.

-Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, Donostiako eskoletako aniztasunari erantzuteko, hezkuntza laguntzarako espezialistak berma daitezen.

-Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Donostiako HH eta LHko zentroetan administratiboak berma daitezen.

-Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Hezkuntza bere murrizketa politiketatik at utz dezala, oinarritzko eskubide unibertsala den heinean.

Donostia, 2016ko uztailaren 6a

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko bozeramailea